



Lana / La obra

Joseba Lozano Santos. Gasteizko "Zapa" ka-lean jaio zen 1962an. Euskal Filologia eta Filologia Hispanikoa ikasi ondoren, azken hogeita bost urteotan Eusko Jaurlaritzan aritu da lanean: itzulpengintzan, administrazio hizkeran, hizkuntza prestakuntzan, euskalduntzean, hizkuntza normalizazioan... Artikulu eta liburu ugari idazteaz gain, ikastaro asko ere eman ditu gai horien guztien inguruan. Literaturari dagokionez, 2005ean akzesit bat eman zioten Gabriel Aresti ipuin-lehiaketan, eta bi urte geroago, Donostia Hiriko Kutxa Literatur saria irabazi zuen *Hasperenka ipuinarekin*.

2011n argitaratu zuen bere lehen eleberria: *Argiaren erreinua*.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Herioren mandataria**
Egilea / Autor: **Joseba Lozano**
Saila / Colección: Narratiba, 99
ISBN / EAN: 978-84-9109-166-0
Salneurria / Precio: 18 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / N° páginas: 232
Formatua / Formato: 15 x 22 cm



Lana / La obra

Oscar Miller idazle ospetsu eta hipokondriako bat da. Osasun arazoak dituenez, Marco Berling medikua kontratatzea erabakitzen du, haren zerbitzura jardun dezan kostaldeko etxe bakarti batean. Marcok amesgaiztoak izaten ditu sarri, eta horiek segida izaten dute gauetik gauera, argumentu bati jarraituko baliote bezala. Amets horietan, lagun batzuekin biltzen da "ehizara" joateko; animaliak hiltzeaz aspertzen direnean, ausaz aukeratutako pertsonak hiltzen hasten dira rol-joko baten modura; eta hori ere aspergarri gertatzen zaienean... Gutxien espero duenean, ordea, amesgaiztoetako pertsonaiak agertzen hasten zaizkio bizitza errealean.

Hilketak, kondaira zaharrak, suspentsea, misterioa, beldurra... horiek guztiak nahasten dira, ametsaren eta errealtatearen arteko muga orain handik orain hemendik pasatzen hasten denean.

"Ispiluari begiratu zion, eskua luzatu, eta bere aurpegiaren irudia haztatu zuen kristal hotzean. Beharbada, bere benetako bizitza beira haren atzealdean ezkututzen zen. Agian, zoro-begiekin so egiten zion tipo hura ez zen bera, bizitza propioa zeukan beste bat baidarik. Bizitza bat, ispiluaren atzean atxilotuta..."